

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

### **ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Erabakia: 2008/916/EE Erabakia, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2008ko azaroaren 19koa, Globalizaziora Egokitzeko Europako Funtza mobilizatzeari buruzkoa, Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen 2006ko maiatzaren 17ko erakunde arteko Akordioaren 28. puntuari jarraiki. Akordio hori aurrekontu-diziplinari eta aurrekontu-prozeduraren hobekuntzari buruzkoa da.

---

Ondoko itzulpena Eusko Jauriaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiria du.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «DECISIÓN 2008/916/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 19 de noviembre de 2008, relativa a la movilización del Fondo Europeo de Adaptación a la Globalización, de conformidad con el punto 28 del Acuerdo interinstitucional de 17 de mayo de 2006 entre el Parlamento Europeo, el Consejo y la Comisión, sobre disciplina presupuestaria y buena gestión financiera» (*Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 330/16, 2008/12/09koa*)»

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

II

ERABAKIAK

EUROPAKO PARLAMENTUA ETA KONTSEILUA

**EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN ERABAKIA**  
**2008ko azaroaren 19koa**

**Globalizaziora Egokitzeko Europako Funtsa mobilizatzeari buruzkoa, Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen 2006ko maiatzaren 17ko erakunde arteko Akordioaren 28. puntuari jarraiki. Akordio hori aurrekontu-diziplinari eta aurrekontu-prozeduraren hobekuntzari buruzkoa da.**

(2008/916/EE)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuaz aztertu dute,

Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen 2006ko maiatzaren 17ko erakunde arteko Akordioa aztertu dute, aurrekontu-diziplinari eta aurrekontu-prozedurari buruzkoa <sup>(1)</sup>, eta, bereziki, haren 28. puntua,

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1927/2006/EE Erregelamendua aztertu dute, 2006ko abenduaren 20koa, Globalizaziora Egokitzeko Europako Funtsa eratzekoa <sup>(2)</sup>, eta, bereziki, haren 12. artikuluko 3. paragrafoa,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

(1) Globalizaziora Egokitzeko Europako Funtsa («Funtsa») eratzearen arrazoia hau da: munduko merkataritzaren ereduetan izandako egiturako aldaketa handien ondorioz kaleratutako langileei laguntza osagarria ematea, bai eta lan-merkatuan berriro sartzen laguntzea ere.

(2) 2006ko maiatzaren 17ko erakunde arteko Akordioari esker, urtean gehienez 500 euro arteko kopurua mobilizatu daiteke funtsetik.

(3) Italiak Funtsa mobilizatzeko lau eskaera aurkeztu zituen, ehungintzaren sektorean izandako kaleratzeetarako: 2007ko abuztuaren 9an, Sardiniarentzat; 2007ko abuztuaren 10ean, Piemontarentzat; 2007ko abuztuaren 17an, Lombardiarentzat; eta 2008ko otsailaren 12an, Toskanarentzat. Eskaera horiek 1927/1006/EE Erregelamenduaren 10. artikuluan xedatutako finantza-ekarpenak erabakitzeko baldintza guztiak betetzen dituzte.

(4) Funtsak, hortaz, finantza-ekarpenak mobilizatu behar ditu, eskaera horiei aurre egiteko.

ERABAKI DUTE:

*1. artikulua*

Europar Batasuneko 2008ko ekitaldiko aurrekontu orokorraren esparruan, 35.158.075 euro mobilizatuko dira konpromiso- eta ordainketa-kreditutan, Globalizaziora Egokitzeko Europako Funtsaren kontura.

*2. artikulua*

Erabakia *Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean* argitaratuko da.

Estrasburgon emana, 2008ko azaroaren 19an.

*Europako Parlamentuaren izenean, presidentea* H.-G. PÖTTERING

*Kontseiluaren izenean, presidentea* J.-P. JOUYET

---

(1) C 139 EO, 2006.6.14koa, 1. or.

(2) L 406 EO, 2006.12.30koa, 1. or.